

EUSKAL OHIKUNDE EDO LEGEDIAZAZ HITZ BI

Barandiaran'go Jose Migel

Idazki honen gai, zenbait sineste, irizpen eta ohitura izango dira, batikbait behintzat euskal-hezikeraren eta etniaren oinharri bezala ageri zaizkigunak eta gure legedi bezala esoindu digutenak.

Euskalherriak baditu oraino bizikera bereziak, gure lurralde honek eskaintzen dizkion auta-bideai eta bere lehendikako joerai erantzunaz eraikiak: batez ere esku-langintza, olagintza, nekazaritza, abelzaintza, eiza, arrantza eta merkataritza.

Bizimolde hauen egikera bereziak maiz aipa ditugu gure idazkietan eta beren urratsak usmatu ditugula askotan adierazi degu. Aipa ditzagun orain heuren inguruko zenbait ohikunde eta irizpide: oinpeko legeak eta heuren agerpenak.

1. Euskal-lurra herriaren lurra izan dela. Oraino ere bai, zatika bederen, toki askotan. Ba da ordea euskal-esaunda bat: “gizakiak ba du lurra, berain bizitzeko eta berain ehartzeko”. Bainan honek ez du esan nahi lurraren jabe dala, beraren irauale eta ustiazale baino.

2. Euskaldunok ba ditugu geuron elkargoak. Baita hauen eskarri agiriko bat ere: euskera. Izkuntza hau ez da gure elkargoaren eskarri utsa; bera baida gure arbasoen ibilaldi luzeko oiharzuna. Adibidez, astearen egunen izenak —astelehen, astearte, asteazken—, lehengo lege baten agerpena; ilen izen batzuek berdin —epaila, jorraila, orrila, garagarrila, uztaila, iraila—; eta beste zenbait izen, e.b. ozpinarria, oneztarria, aiztoa, zulakaitza, garranga (igitaiarena), jentillarri. Beraz euskera garrantzi haundiko ogasuna, agerkai zoragarria, lehenaroetatik datorkiguna.

3. Gure elkargoetarik aipagarrienak: etxea edo azkazia, auzunea, herria, eskualdea eta Euskalherria. Hauek ere egikera berezikoak, batik-bat azkazia (etxeko bizien eta hilen edo arbasoen elkarte).

Bakoitza bere etxean bizi da gehien, nahizta orain, giro arrotzen erakarpenaz, geroz ta gehiago besteentzen ari da. Horregatik etxea azkaziaren erdoki eta ezaugarri bezala ageri zaigu.

Etxeari loturik datozkigu azkaziaren erdi-muintzat dauzkagun inguruneak eta eginkizunak. Batez ere gure artean etxea, famili edo azkaziaren aterbea dalako; baita lantegia, tresnen bildegia, eliza, hilarria eta arbasoen erdokia dalako ere.

Ikuspegi honen adierazgarri diran egintzak lehen-aroetatik heldu zaizkigu. Adibidez, auxe: beste herrialdeetan elizai eta hilarriai bakarrik dioten begirarena (horien inguruan biraka ez ibiltzea, alegia) euskaldunak etxeari ere badiote. Beraz elizaren eta hilarriaren mailakoz beren etxea daukate. Bertako etxeoandrea berriz elizandretzat. Sineste eta ohitura honek ere lehenaroetako legeetara garamatza (1).

4. Diogun horrek gure hezikera eta ohikuntzazko nahiz idatzitako legedietan zenbait ondoramen sarrerazi du. Ikus egikera bat: etxearekin bizilagunak ezezik arbasoak ere zerrikusia baidute: hauei hil-otoitz eta opariak zor die. Orregatik lehen-aldietan (ia gaurdaño) etxearen ardura zuten burungarriak etziran osoro etxearen jabe: etxea ezin ausi zezaketen, ezta azkariaren menpetik atera edo aldendu ere: osorik atxikitzea behartuak zeuden.

5. Hortik heldu da honako ondore hau: gurasoak beren haurretarik bat bakarra (semea edo alaba) oinordeko aukeratzea.

6. Etxea, eliza delarik, babesleku eta igesleku da. Batebat, bere etsaiagandik igeska dijoala, etxe batean sartzen bada, onik da eta egon deike lasai, jartzazileak, nahizta irelua izan, ez dauka an sartzerik. Etxea babesleku baida (2).

7. Etxeko burungarriak —jaun-andreak— beren egintzekin elgar osatzen baidute, bertako goraberetan eskubide berdinekoak ditugu oraindik ere leku askotan. Halaz ere, hezikeraren zenbait ikuspegi garrantzitsutan, etxeoandrea da lehenengo. Ikus egikera heuek: etxeo jaunak, bere garaietan, abereak bedeinkatzen ditu; etxeoandreak ordea, esko bedeinkatuz, etxean etxeoak onesten ditu jaunagandik asita azkeneko haurrarengaino; etxeoandreak, arbasoekiko hartu-emanetan, etxea ordezkutzen du; amaren onespinari onura dario, amaren biraoari zori-gaitza; ikusbiran ageri zaizkigun izakirik larmentsuenak emakumezkoak direkazko sinestea gaurdaino iritxi zaigu: *Andra Mari Muiroko* (“arpeetako Mari”), *Eguzki-amandrea*, *Ilhargi-amandrea* eta hauen ama *Lurbira*.

8. Sinismen eta ohitura hauek, nahizta zenbait tokitan kristaugoaz iku-tuak edota indartuak, lehen-gogoeten eta ekanduen lekuko ageri zaizkigu. Eta eragile horiek, euskal-foru eta legediaren ardatza —e.b. euskal-etxe eta azkaziaren egitamua— gure aldi hontaraino ekarri digute.

(1) Begira *Etxe nere Diccionario de Mitología vasca'n* (“Obras Completas”, t. I).

(2) Begira *Oyulari* itza (*ibidem*).

9. Sinismen eta ohitura horiek, euskal-gizabideak gogorki kutsaturik, datorzkigu.

Izan ere euskaldunai, beste edozeini bezala, bethidanik sortu zaizkie munduarekiko eta gizakiarekiko galde nagusiak —ni zer naiz eta zertarako?—; baita hauei dagozkien erantzuerak ere.

Gai hortan euskaldunak baditu, lehen-aroetatik, zenbait gogai eta buruzpide. Baita guri eta mundu guztiari eragiten digun izakiagaz —Jainkoagaz, alegia— zinstea eta itxaropen berezia eta hor errotutako egitarau eta jokabidea ere.

Gogoeta hauei begira moldatuak ageri dira euskal-ohikunde edo lege asko; gogoeta berak zurejatu zuten gure arbasoen gizabidea eta honen lekuko edo adierazgarri dan geroztiko legedia, ohiturazkoa lehenengo eta idatzia gero.

Beraz euskaldunak, millaka urtheetako ibilaldi luzean, gertu, albizitu eta mamitu dute beren hezikera eta eraiki beren etnia eta, hauen arauera, sorrerazi beren legedia. Heurek atxiki dute ogasun hori eragozpen iguingarri batzuek bidean jarri zaizkigun arte. Drango horieri eragin eta gure bizikera euskal-gizabideaz ornitzea, hara hor gure zerregin bat.